

**IGORRE-KO JULEN AITA**  
(1898-1988)

Yurre-tar Yulen Aita, berak azken denboretan idazten zuen bezala, Bizkaiko Igorren, Arratia ibarrean jaioa da. Herriz Nikolas Barrenetxea Uribasterra zuen izena. Jaio 1898.urteko abenduaren 3.ean jaio zen; hil berriz aurtengo martxoaren 27.ean., Erramu Igandez. Hamabi bat urteko mutikoa zelarik, Bizkaia utzi eta gero hilko zen Alisasuko kaputxinoen komentura abiatu zen, fraide izateko asmoarekin. Filosofia eta teologia Hondarribian eta Iruñean egin zituen, eta 1923. urteko martxoaren 31.ean apaiztu zen.



Bere euskal zaletasunak bultzaturik, oraindik ikasle zelarik hasi zen aldizkarietan idazten bai hitz laxoz eta bai hitz neurtuz. Bere lehenbiziko olerkia eta prosa *Zeruko Argia*-n ikusten ditu argitaratuak. Gainera Intzar Damaso Aitaren

laguntzaile haundia izan zen aldizkari horren lanetan. Baina hainbeste maite duen euskara eta Euskalerrria utzi behar ditu, nagusiek Txinara mixiolari bidaltzen bait dute 1927.urtean. Txinan egongo da hogeita-sei urtez, handik ere maiz idazten duela *Zeruko Argian*. Komunistek botatzen dute, eta zenbait hilabete Filipinetan igaro ondoren, 1954. urtean Aberrian dago berriz ere eta Altsasuko komentua izango da haren lantegia.

Ez du euskal aldizkaririk, ezin du beraz euskaraz idatzi. Hala ere, badu non eta nola lan egin euskaldungoaren alde. Sakanako herriek ongi ezagutzen dute kaputxino txiki eta bizkorra, berarekin aitortzen dira eta haren predikuak entzuten dituzte. Bi leku ditu maite ezer bainoago.

Prest zegoen Aralarko Santutegira joateko, behar zen guztietan. Altsasutik trenbidez Uharteraino, eta gero hemendik oinez aldapa gora San Migeleraino, hemen euskaldun jendeari pozik languntzeko. Behin baino gehiagotan egin dugu bide hori berarekin, Zamartze baselizaren aldamenetik, burnizko gurutzearen ondotik, ezker-eskuin trikuharriak (Hartzabal, Otsopasaje) genituela. Euskara izaten zen gure mintzagaia.

Guk ezagutu genuenean 66 urtekoa zen bera. Fraidekide guztiak harriturik zeuden Igorre-ren ibilaldiekin. Ez Aralarrera bakarrik, joaten zen baita ere Urbiera, Aita Lasarekin batean euskal artzainei laguntzera. Trenbidez Altsasutik Otzaurtera, eta hemendik gora oinez.

Ibiltari eta ibiltzaile haundia izanik, maiz topatzen zen inguruko mendi, baso eta dermioetan jende xumearekin: langile, nekazari eta artzainekin. Orduan ere, besteak beste ahalegintzen zen euskararekiko zaletasuna eta maitasuna pizten. Beti eta eten gabe saiatzzen zen herriaren bihotzean gure hizkerarenganako garra bezirik egon zedin.

Esan dugun bezala, gazte-gazte zelarik hasi zen euskaraz idazten. Batez ere *Zeruko Argian* agertu ziren haren idazlanak. Ez dugu ahaztu behar gudu ondoko *Zeruko Argiaren* zuzendari izan zela denbora puska batean. Idatzi eta argitaratu zituen liburuak, berriz, hauek dira:

1. Bedoña-tar Joakin "Loramendi"ren *Olerki eta Idatzi Guztiak*, 1960;
2. *Loramendi eta haren garaia*, 1962;
3. *Batikano Batzarra, lenengo aldia*, 1965;
4. *Batikano Batzarra, 2., 3. eta 4. aldiak*, 1967;
5. *Mao tse-tung*, 1978;
6. *Mao tse-tung, 1936-1954*, kronika eta bigarren zatia, 1987.

Horiek dira egin zituen lanak. Baina besteri ere lagundu zion euskarari buruzko ikerketa lanetan. A. Kandido Izagirrek zintzoki aitortzen du Igorre-k lagundu ziola Altsasuko euskara ixtudiatu zuenean "atzerarre guztietan eta beronek arkitu dizkit", dio, "lankide onenak erri ontan". Pedro de Yrizar-ek ere A. Igorrerengana jo zuen eta honek pozik lagundu lekuko onak bilatzen, Altsasu eta Olaztiko aditzari buruzko iker lanetarako.

Azkenik, Altsasuko kaputxionen elizan, berari esker, eman izan da meza bat euskaraz altsasuar jatorrentzat. Eta bertako ikastolan ere egin zuen lanik, ahal

zuen neurrian. Beraren euskal zaletasuna neurtzeko ez dugu isilik gorde nahi, berak behin batean eta bat ere arrokeriarik gabe esan ziguna, alegia, Txinara bidali izan ez balute, Azkueren hiztegia buruz jakingo zuela.

Arrazoi guzti horiengatik Euskaltzaindiak urgazle izendatu zuen, Donostiako Diputazio Jauregian 1983.eko martxoaren 23.ean izan zen bilkuran.

*Lekaroz, 1988-IV-29*  
*Frantzisko Ondarra*